



DONEKUNTZA - BIDEA

Iñoz ezer bear ba'dogu, Jaunak bereala emoten dauskula ikusteagaitik ete dan nago; dana dala, gogoz txiro izan barik, azaletik baño izan barik txirotzat bizitzea ludiari iruzur egitea deritxot. Niri neuri, ori aberatsak eske ibiltea ez ete dan bilduñez, bañen-mimikoak eleuskit arterik artzen itxiko. Eta izan be baleiteke luditañen emoyen begira ain artega dagozanak, eskatzen asita, gaur oni eskatu, biar ari eskatu, azkenez bear eztana, ta bear ba'da, geyago bear dabinari eskatzea; ta emoleak galdu barik irabazi egiñafen, geu giñake galtzale. Jaungoikoak ez al dau olangorik jazoten itxiko! Ori jazotekoan obe zeunkie jarauntsia eñki.

Jaungoikoaren maitasunañen, ez egizue, añen, ezelan be ukañik emongo dautzuenik edo eztautzuenik bururatu be egin. Iñok zuetakoren bat ikusten ba'dau, bañiz, ofetan uts egiten, añen begio Jaunari ta, nai ta txiena izan, alakoari oartu ta apalik esan begio eztabilala zuzen. Ta bai dabilela oker ibili be! Ezarian-ezarian benetako txirotasuna guztiz galtzeko bidetik baitabil.

Eztitu Jaunak bere mirabeak itxiko ta beragaitik olangorik jazoko eztalako ustea dot. Zeuek aginduta idatzi dodan au ofetarako iratzargafi bekizue.

Sinestu egidazue, ene aizatxoak. Neuk be lenago, txiro bizitzeko agintza egiñafen, eneban gogozko txirotasunik ezagutzen, ero nenbilen ofetan; baña azkenez

zuen onerako Jaunak erakutsita ikusi ditut zerbait onoi-
men ofen obariak, ta edozeñek be ikusi leikezalakoan
nago, bearbada nik bezin ondo ezafen. ¡Gogozko txi-
rotasuna! Ezta luñean onik onoimen onek eztauanik;
oroen jabe egiten gaitu; luñeko ondasunak ezesten di-
tuana ondasun guzti ofein jabe dala esan geinke-ta.
¿Zertarako ditut nik eñege ta andiki guztien aberasta-
sunak, eta zer ardura daust ni euren edeña euki nai ez
eukiteak, ori guzti ori baño Jaungoikoari eurak dirala
-ta naigaberik txikienik be ez emotea gurago ba'dot?
¿Zer ardura izan bear ete dauste euren andikeri guztiak
be, benetako txiro izatea berez be gauza andi ta itzal-
gaña dala ba'dakit?

Nire eritxiz, andikeriak eta diruak alkañen lagun
dira beti; andikerien uzian dabilanak eztau dirurik iguin
izango, ta diruzale eztana ezta andikeri-zale be izango.
Oartu, bai, ondo: izen andia izateko etxe edo diru as-
koren jabe izan bear dala dirudi. Nekez aurkituko dogu
munduan txirorik izen andia dauanik. Benetan andia
izan añen be, eztabe aintzat eukiko. Alan da guzti be,
benetako txirotasunak ekarten dauan anditasuna, a bai
dala anditasuna! ¿Nork areri ez dautso itzalik izango?
Eta egiz, Jaungoikoagaitik bakarik artutako txirotasu-
nak eztau Jaungoikoarena baño besteren edeñik egite-
rik; eta jakiña, iñoren beañik eztanean adiskide asko
izaten dira. Bai orixe; neuk ondo ikusita dakit.

Onoimen onetzaz asko idatzi da-ta, edertu beañean,
itxusitu eztagidan, eztiñot geyago ezer. Bearbada,
bañiz, eztot oindiño berau ulertzen; zelan, ba, berari bu-
ruz egoki itz egin. Neuk oañez ikasia baño eztot emen
esan, eta, egia esateko, berau idaztean zer idazten izan
dodan be eztot jakin; ain itsu-mustuan idatzi dot. Jaun-
goikoari eskeñak, esana esanda dago. Beraz, ba-daki-
gu; txirotasunak izan bear dau gure apaingaña, Gopa-
tzaren asikeran gure asabak ain maite ta aintzakotzat

eben txirotasuna. Gaba eltzean ufengo goxerakorik ez ebela bizi ei ziran areik, ondo dakianak esan daustanez.

Orain eztoigu ofenbesterañoako txirotasunik, baña gogoz ta biotzez beintzat ofenbesteraño be eltzeko alegiñak egin bear doguz. Ordu bikoa da bizitza, saria, bañiz, betikoa; ta Jaungoikoaren onuak betetea, Jaungoikoari zer edo zertan jañaitzea, beste saririk ezpa-gendu be, naikoa sari izan bear leuke guretzako. Auxe bedi gure ikufiñaren apaingafia: txirotasuna etxean, jantzietan, itzetan eta batez be asmoetan. Orixe aretaz bete daigun; ta ori ondo bete daigunartean, ez bildurik izan, ezta etxe onetan Jaungoikoaren maitasuna otzitu-ko; aresi sendo-jasoak dira txirotasunarenak, Kalare Deunak iñoanez Aresi ofeikaz eta apaltasunez esitu gura ebañan deun ofek bere lekaimetxeak. Eta, ziñez, txirotasuna bear danez jabon ezketiño, etxe andi ta aberatsak izanda baño obeto zainduko dira on bidea ta beste ekandu onak be. Afen, ez egizue etxe andirik jaso; Jaunaren odolafen eskatzen dautzuet; iñoz jaso ba'dagizue, bañiz, bereala jausiko al jatzue!

Ezeukien txindiz etxe andiak jasoteak gauza itxusia dirudi, ene alabatxoak; gure etxeak txiki ta txiroak izan bear dabe. Zer edo zertan gure Efegeren antza be izan daigun, eta ara: jayotzeko estalpetxoa ta ilteko Gurutztea, beste etxerik ez eban arek izan. ¡Aukera gitxi izateko etxeak arexek, ziñez!

Beste batzuk etxe andiak egiten ba'dabez, eurek dakie zer dagien; asmo zintzoak erabiliko dabez, aurki; baña amairu lekaimetxoentzat naiko da odozein zoko

Beti bañuan egonbeaña arintzeko, landa edo baratz bat eukitea, tira, ederto legoke; baselizatxo batzuk be egin leiz bertan otoitzerako, ta otoi-zaletu ta oneraspe-na biztuteko aukerakoak litzakez.

(Jañaituko da).

IGOTZ OBA